basque
trade&
investment

Euskal Enpresen Nazioartekotzerako Zerbitzuak eta Programak

BasqueTrade & Investment
Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO spri TALDEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BASQUE GOVERNMENT

Gure zerbitzu-zorro berria enpresaren premietara egokitzen da eta enpresen profilen arabera integratuta eta segmentatuta dago. Gaitasun propioak eta agente kolaboratzaileenak uztartzen dituen eredu berria

- Aholkularitza Estrategiko eta Operazionala
- Finantzaketa Baliabideak
- Talentua
- Adimen Lehiakorra
- Lankidetza eta Aliantzak
- Nazioarteko Lizitazioak
- Nazioarteko Sustapen Ekitaldiak

Aholkularitza Estrategiko eta Operazionala

Nazioartekotzeko Orientazioa

OEH: Oinarri Esportatzailearen Hazkundea

EUSKO GANBERAK
CÁMARAS VASCAS

Bideragarritasun azterketa arlo ekonomikoan, komertzialean eta giza-baliabideen arloan, eta enpresak nazioartekotze prozesuari ekiteko duen gaitasunaren azterketa

1. **Nazioartekotzeko potentzialaren azterketa**
2. **Ibilbide eta hastapenen tutoretza**

Nazioartekotze Prozesuko Lehen Urratsak

Aholkularitza Zerbitzuak

Adimen lehiakorra: enpresa/produkturako eta negozio-eredurako merkatu-azterketa esklusiboak

Erosketak
- Hornitzaileak identifikatu
- Txosten komertzialak

Kanpoko logistika
- Banatzaile eta kanal komertzialak bilatu
- Banatzaile eta agenteen aldi-bateko jarraipena egin
- Hornikuntza kanalak bilatu

Marketina eta salmentak
- Enpresei lagundu
- Bezeroak bilatu
- Enpresa-gosariak jomugan
- Enpresei buruzko ikerketa
- Agendak prestatu
- Azoketan parte hartu

Talentua
- Talentua bilatu eta aurre-aukeraketa egin jomugan

Finantzak
- Kontu korporatiboak irekitzeko laguntza

Eratzeko eta lehen ezarpenak egiteko zerbitzuak
- Kokalekuak, lursailak eta pabilioiak bilatu
- Aldi-bateko ezarpenak negozio-zentroetan

Zabaldu Programa

Nazioartekotze-maila handirik ez duten enpresek atzerrian duten presentzia handitzeko dirulaguntzak

%50tik beherako esportazio portzentajea duten ETEei zuzendua

Eskaerak iritsi ahala ebazten dira aurrekontua agortu arte

Hiru eskaera enpresa bakoitzeko

Gastu hautagarriak:

- Aholkularitza estrategikoa
- Aholkularitza operazionala
- Sustapen gastuak
- Jabetza industrialarekin eta homologazioekin lotutako gastuak
- Atzerriko ezarpenekin lotutako gastuak

Onartutako gastuen %50raino

Merkatuak Zabaltzea eta Dibertsifikazioa

Aholkularitza Zerbitzuak

Adimen lehiakorra: Lehentasunezko sektoreei buruzko informazio segmentatua eta gaitasuna tokian tokiko balio-kateetan sartzeko

Eratzeko eta lehen ezarpenak egiteko zerbitzuak

- Laguntza birkokapenak eta itzulerak egiteko

Lankidetzak eta M&A

- Bazkide komertzialak identifikatu
- Aliatuak, bazkideak nahiz enpresak bilatu erosketetarako
- Agendak balizko bazkideekin

Balio-katearen gobernantza

- Goi-mailako laguntza instituzionala
- Kontaktuak eta tramiteak erakunde publiko eta pribatuetan
- Bisita-agenda eta organismo adierazgarrienetara joateko laguntza

Zerbitzu sektorialak: Adituen aholkularitza, merkatu interesgarrietara sartzeko proiektuak definitzen eta neurrira eginiko ekintza-planak garatzen laguntzeko

Sakondu Programa

Nazioartekotze-maila handiko enpresentzako dirulaguntzak, beren lehiakortasun posizionamendua hobetzeko beste merkatu batzuetara dibertsifikatuz

%50tik gorako esportazio-portzentajea duten ETEei zuzendua

Eskaerak iritsi ahala ebazten dira aurrekontua agortu arte

Gastu hautagarriak:

- Aholkularitza estrategikoa
- Aholkularitza operazionala
- Sustapen gastuak
- Jabetza industrialarekin eta homologazioekin lotutako gastuak
- Atzerriko ezarpenekin lotutako gastuak…

Onartutako gastuen %50raino

Finantzaketa Baliabideak



Tailerrak

Finantza-aholkularitzako tailerrak, zeintzuetan azaltzen den zein finantza-tresna publiko eskuratu daitezkeen

Finantziaketa Kanala

Finantzaketa-premiak jaso eta bideratzen dituen lehiatila nazioartekotzea bultzatzeko

Gauzatu Programa

Atzerriko ezarpenak sortu eta garatzeko laguntzak

Kreditu-ildoak **(finantzazko kostua %0)**, laguntza jaso dezakeen **inbertsioaren %30erainokoak**, gehienez 1.000.000€ko inbertsioarekin

Urtebeteko gabealdia + 5 itzulera

Proiektuaren gutxieneko inbertsioa: 120.000 €.
Goitik jota 36 hilabeteko epean egin behar da

Talentua

Jomugako Zerbitzuak

Talentua bilatu eta aurre-aukeraketa egin

Enpresen Gaikuntza

EUSKO GANBERAK
CÁMARAS VASCAS

Tailer hauen helburua da euskal enpresei ezagutzera ematea nazioarteko jardueraren alderdi desberdinei buruzko joerak, teknikak eta esperientzia praktikoak, aukera izan dezaten beren lehiakortasuna hobetzeko

Prestakuntzako eta Nazioarteko Mugikortasuneko Programak

1. Gazte titulatuak trebatu ezagutza akademikoa emanez eta esperientzia praktikoa eskainiz atzerriko merkatuetan

BEint

100 beka
- Gradu-ondoko espezialista titulu propioa nazioartekotze arloan
- 12 hilabeteko fasea erakunde publikoan
- 8 hilabeteko fasea enpresa pribatuan

2. Unibertsitateko eta LHko goi-mailako graduko titulatu gazteen nazioarteko mugikortasuna bultzatu

GLOBAL TRAINING

400 beka
- 6-12 hilabeteko praktika profesionalak atzerriko enpresetan edo atzerrian kokatuta dauden euskal enpresetan

Adimen Lehiakorra

- Sektore/herrialde azterketak
- Intereseko merkatuen azterlan konparatiboak
- Aukerak identifikatu eta baloratu
- Merkataritza-akordioei buruzko informazio eguneratua...

Txostenak hemen argitaratzen dira:

basquetrade.eus

Gainera,
- **Enpresa, produktu eta negozio-eredurako merkatu-azterketa esklusiboak**

Lankidetza eta Aliantzak

Lankidetza Zerbitzuak

- Nazioarteko bezeroak bilatu
- Aukera zehatzak detektatu
- Enpresa-kolektiboak identifikatu eta dinamizatu
- Study Trips / Opportunity Trips

Elkartu Programa

Lankidetzan eginiko nazioartekotzea sustatzeko dirulaguntzak. **Enpresa elkarteei edota lankidetza taldeei zuzenduak**

Gastu hautagarriak:

- Eratze- eta egituratze-gastuak
- Lankidetza taldearen dinamizazio eta koordinazio gastuak
- Ekintza-plana edo Nazioarteko Estrategia garatzeko gastuak
- Merkatu-prospekzioak egiteko aholkularitza-zerbitzuak
- Azoka eta kongresuekin lotutako gastuak
- Zuzeneko misioak eta alderantzizkoak…

Onartutako gastuen %60rainokoak

Profex Programa

EUSKO GANBERAK
CÁMARAS VASCAS

Euskal ETEen zerbitzura jartzen da **esportazioko sustatzaile bat lanaldi partzialean hiru enpresekin partekatuta.** Programa honen barruan Nazioarteko Plan Komertzial bat ere egiten da eta teknikari aditu batek etengabeko jarraipena egiten dio plan horri

Nazioarteko Lizitazioak

Basque Country Lizitazioak Plataforma

Programa honen helburua da enpresen parte-hartzea handitzea organismo multilateralek finantzatutako lizitazio publikoetan

Zer eskaintzen den:

- Aukerak sasoiz identifikatu
- Enpresak organismo lizitatzaileei aurkeztu Basque Tarde & Investment agentziaren bitartez, alde batera utziz aurkezpen "hotzak"
- Euskal enpresak posizionatu lizitazioak argitaratu baino lehen

Era berean, aholkularitza eta laguntza ematen zaie enpresei proiektuen lizitazio eta esleipen ziklo osoan, arrakasta izan dezaten.

Pilotu Programa

Atzerriko inbertsio publikoko proiektu pilotuen diseinua, garapena eta inplementazioa finantzatzeko dirulaguntzak

Merkatu publikoetan lan egiten duten ETEei zuzendua

Proiektuaren kostuaren %50erainokoak, **gehienez 50.000 €** Gehienezko inbertsioa: 200.000 €

Nazioarteko Sustapen Ekitaldiak

Nazioartekotzearekin hitzordua Euskadin

Basque Trade & Investment agentziaren kanpo sareko – 80 herrialdeetan daude – adituen aholkularitza pertsonalizatua jasotzeko aukera paregabea

Nazioarteko foro nabarmena, aditu, negozio buruzagi, politikari eta bestelako eragin handiko pertsonak biltzen dituena, egungo egoera ekonomikoarekin eta negozio joera nagusiekin zerikusia duten gakoak eztabaidatzeko

Jardunaldiak + + +

Potentziala duten merkatu eta sektoreen negozio aukerak zuzenean ezagutarazteko **lan-saio eta B2B bilerak**

Gutxienez hilabete bat lehenago argitaratzen dira

Azokak + + +

Nazioarteko hainbat azokatan parte hartzea eta laguntza ematea euskal enpresei

Misio Komertzialak + + +

Zuzeneko misioak: euskal eskaintzarentzat potentzial handiena duten merkatuetarako bisitak

- Neurrira eginiko elkarrizketa-agenda
- Jomuga-merkatuari buruzko dokumentazioa

BasqueTrade & Investment
Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

EUSKO GANBERAK
CÁMARAS VASCAS

Study Trips y Opportunity Trips + + +

Negozio-aukera sektorialak euskal enpresetara hurbildu, laguntza emanaz eta enpresak posizionatuz etorkizun hurbilean zehaztuko den aukera bati begira.

BasqueTrade & Investment
Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO spri TALDEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BASQUE GOVERNMENT

Urkijo zumarkalea 36 zk. – 5. solairua (Bizkaia Plaza)
48011 Bilbao info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60

basquetrade.eus